

8. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan, bezeroen segurtasuna eta ongizatea beti izango dira gure lehentasun nagusiak. Horregatik, gure zerbitzuarekin bat egiten duten guztiek, batzuetan ahaztuta ere, gertu eta segurua sentitzea nahi dugu. Gure helburua esperientzia konfiantzazkoa eta pertsonalizatua eskaintzea da, erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta haien segurtasuna bermatzeko.



Gure eguneroko zerbitzuan, harreman zuzena eta hurbila bultzatuko dugu gidariaren eta bezeroen artean. Aplikazio berritzailearen bidez, erabiltzaileek edonola eta edozein momentutan izan dezaketen kexak, iradokizunak edo iritzia partekatzeko aukera izango dute. Halaber, telefono-zenbaki eta posta elektronikoa bidez ere, arreta pertsonalizatua eskuragarri izango da erabiltzaile guztientzat.

Zerbitzu pertsonalizatua aukeratzen duten bezeroentzat, esperientzia hobetua eskaintzen dugu. Emakume gidariarekin harreman zuzena izateko aukera izango dute, bidaietan seguruago eta erosoago senti daitezken. Horrez gain, zerbitzu berriaren hasieran, lehen hilabetearen gurekin harpidetzen diren erabiltzaileen artean **autodefentsarako 5 ikastaro zozkatu** egingo ditugu. Ikastaro hauek erabiltzaileen autodefentsa gaitasunak hobetzeko helburua izango dute, eraso fisikoen aurrean beharrezko ezagutza eta trebetasunak eskainiz.

Zerbitzuan bost hilabetez harpidetuta dauden bezero guztiei opari berezi bat eskainiko diegu: **KitSafe autodefentsarako kit** bat. Kit honek segurtasun-elementu garrantzitsuak izango ditu, hala nola labanak, alarma, linterna, metxeroa eta bestelako osagarri praktikoak, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko. Kit hau erabilgarri izango da bezeroek arriskuan egon daitezkeen egoeretan, eta beharrezkoa izanez gero, laguntza azkarra eskainiko du.

Azkenik, gure zerbitzua probatzen duten bezeroek **BeSafe eskumuturreko berezi bat** jasoko dute lehen autobus bidaiari, gure gidarien eskutik. Eskumuturreko honek, gure zerbitzuaren logoarekin eta feminismoaren ikurra erakutsiz, ongi-etorria eta segurtasunaren ikur gisa funtzionatuko du. Gure helburua ez da soilik garraio zerbitzu bat eskaintzea, baizik eta konfiantzazko eta errespetuzko komunitate bat sortzea, non erabiltzaile guztiek segurtasuna eta babesa sentitzen dituzten.

